



24. korrika!

MARTXOAK 25, ASTEAZKENA

Korrika Usurbilen

13:37 Hipodromoko zubian.

24. Korrikan Hipodromoko zubian hartuko du Usurbilek lekukoa 13:37 inguruan. Zubieta eta Santuenea barrena sartuko zaigu, eta hortik Kalexarrera igoko da. Pikaola atzetik Puntapax kalera jaitsiko da, eta BM paretik Erreka Txikira joango da. Hortik Kale Nagusia hartuko du, eta zuzen 634 errepidera sartuko da. Errepide hortatik Agiñara joango da, eta Mapilen Usurbilek lekukoa Oriori emango dio.



MARTXOAK 26, OSTEguna

Imanol Epelde. Zerbait sartu zait begian

19:00 Sutegiko auditoriumean

Antolatzaileak: Usurbilgo Korrika Batzordea eta Usurbilgo Udala

Sarrerak: 6 euro, usurbilkultura.eus bidez

ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN spoken word-a, musika elektronikoa eta irudiak uztartzen dituen performance garaikidea da. Bizimoduaren abiadura, naturarekiko deskonezioa, zoriontasunaren bilaketa amaigabea, maskulinitatea eta euskara umorez nahasten ditu, publikoa hunkituz eta hausnarrera eramanaz. Eszenan artista bakarra, pantaila eta musika.

BAGARA, BAINA EZ DAKIGU OSO ONDO NOR. Identitatea eraikitzea ez da erraza mundu azeleratu eta globalizatuan.

BAGAUE, BAINA EZ DAKIGU OSO ONDO NON. Hemen eta edonon egon gaitzeko aldi berean.

BAGAZ, BAINA EZ DAKIGU OSO ONDO NORA. Ez norbanako bezala, ez herri bezala.

Garai aldakor hauek bizitzeko modua da asmatu ezin duguna. Umorez eta irmotasunez, garai hauek kantatzera eta kontatzera datorren jendaurrekoa da ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN.




Ostirala 19:00 Aitzagan

Eskolarteko Txapelketaren kanporaketa

Antolatzailea: Gipuzkoako Bertsotale elkarte.

Bat-bateko txapelketan, 14-18 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute.

Hemen duzue informazio gehiago: www.bertsozale.eus



Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazatik irteera

Kantu-jira kalez kale


Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Hemen da udaberria!

Kukua entzun al duzue? Txepetxaren kabirik ikusi? Primaderako liliak azaldu al dira zure inguruan? Eta odola borborka jartzen hasi al zaizu?

Zatoz gurekin Udaberriari ongietorria ematera kantuz!!

Mikel Laboa plazatik abiatuko gara eta herrian zehar kantari ibiliko gara txoriekin lehian! Animatu!!!



LABURBIRA.

Euskarazko film laburren XXIII. zirkuitua



Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkartea

Sarrera: doan.

LABURBIRA, euskaraz sortu eta ekoiztako film laburren zirkuitua da eta aurtien bere 23.edizioa beteko du. Martxoak 1etik 29ra bitartean euskainiko da Euskalerriko areto ezberdinetan eta Usurbilen martxoak 29an ikusiko ditugu ondorengo film laburrak:

Fishy - June Asua Olabarria/Hortzikara - Ane Cuesta/Gerutzen den hori - Aitor Gametxo Zabala/Olentzerori eskatu nion - Amaia San Sebastian Larzabal/Erreka zoko hortan - Ekaitz Bertiz/Orain zer? - Ainhua Urgoitia/A-Maniki - Elixabet Nuñez

Ondoren zuzendari batekin solasean aritzeko aukera izango dugu.

DEIALDIA

KULTURA ETA SORKUNTZAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

Martxoak 12

Otsailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Kultura eta Sorkuntzako dirulaguntza deialdiak. Martxoaren 12a bitarteko epea dago proposamenak aurkezteko.

ERAKUSKETA

TXITXOREN ERAKUSKETA: POLEN

Arte garaikidea Sutegin.

Tamaina handiko oleo-pinturak eta eskulturak.

Non: Sutegiko erakustaretoan.

Noiz: Martxoak 20 – Apirilak 19

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera:
17:00 – 20:00

Larunbat eta igandeetan:
11:30 – 14:00 | 17:00 – 20:00

Naturan polena hedatzen den bezala, kolorea eta materia espazioan zehar zabaltzen dira. Bizitzaren eta sorkuntzaren hasiera.



USURBIL MUSEO IREKIA

BISITA GIDATUAK

• **Martxoak 7, larunbata**

Salbatore Elizaren Ondarea eta Organo Erakustaldia 11:00 Salbatore Elizan

• **Martxoak 11, asteazkena**

Usurbilgo Sagardo Kultura 10:30 Sagardoaren eskulturaren

• **Martxoak 21, larunbata**

Museo Irekia Salbatore Eliza (Gaztelaniaz) 11:00 Sutegin

• **Martxoak 25, asteazkena**

Zero Zabor 10:00 Udaletxean

• **Martxoak 27, ostirala**

Zaintzaren Usurbil 10:00 Udaletxean



Sarrerak: <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

Telefonoa: 747 485140

turismoa@650usurbilbizi.eus

KZ-GUNEKO IKASTAROAK

AURREZ AURREKOAK

Google aplikazioak zure smartphonean

Martxoak 02-12 18:00-20:00 (18 ordu)

Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPekin

Martxoak 13-26 16:00-18:00 (16 ordu)

Zure bidaia planifikatu

Martxoak 27-31 16:00-18:00 (6 ordu)

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabala.

Martxoan Kzgunea: Arratsaldeaz 16:00-20:00

Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00

Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita

Goizez

2 3 4 5 6

9 10 11 12 13

16 17 18

23 24 25 26 27

30 31

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil

Tel.: 943 360 692 · www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua



Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara

eta Gazteria Saila

Tel. 943 371 999

kultura@usurbil.eus

www.usurbilkultura.eus



usurbilkultura.eus

Herritarron tresna

Usurbilgo kultura zabaltzeko

USURBIL KULTURA 2026ko martxoa

	Igandea 14:00	LILATOIA 2026 ETA ONDOREN: PINTXO POTEA ETA MUSIKA EMANALDIA	1
	Igandea 18:00 Sutegin	ANTZERKIA: "KOLAPSOA"	1
	Astelehena 18:30 Liburutegian	LITERATUR SOLASALDIA GAZTELERAZ ANA MERINOREKIN: HERMAN MELVILLEREN "BARTLEBEY, EL ESCRIBIENTE"	2
	Asteazkena 18:30 Sutegin	XXII. SOINURBIL: ZUMARTEKO ABESBATZEN KONTZERTUA	4
	Ostirala 17:30 Zumarteko ganbaran	XXII. SOINURBIL: MUSAS Y FUSAS "TUM TUM CLAP"	6
	Astelehena 18:00 eta 19:00 Salbatore Elizan	XXII. SOINURBIL: ORGANO ERAKUSTALDIA	9
	Osteguna 19:00 Sutegin	KORRIKA: IMANOL EPELDE: ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN	9
	Asteazkena 18:30 Sutegin	XXII. SOINURBIL: HERNANIKO MUSIKA ESKOLA	11
	Osteguna 18:00 Emakumeon etxean	MARTXOAK 8: LIBURU AURKEZPENA ARANTXA URRETAZKAIAREN "ZAHARTZAROAREN MAPAREN BILA"	12
	Osteguna 18:30 Aginagako Eliza Zaharrearan	XXII. SOINURBIL: KONTZERTUA AGINAGAN	12
	Ostirala 19:00 Mikel Laboa Plazan	XXII. SOINURBIL: HUGO SILVEIRA QUARTET	13
	Larunbata 11:30 Zubietako Frontoian	XXII. SOINURBIL: GORA MUSIKA: DANTZAN!	14
	Larunbata 18:30 Sutegin	XXII. SOINURBIL: "OMA" IKUSKIZUNA	14
	Larunbata Egun osoz	USURBILGO GAZTE EGUNA	14
	Igandea 12:00 Kalean 13:00 Frontoian	XXII. SOINURBIL: BERAKO MUSIKA BANDA	15
	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO ZINEA: KAYRA, INKA GERRARIA	15
	Astelehena 17:30 Liburutegian	IRAKURKETA SOLASALDIA GAZTETXOENTZAT: YOLANDA ARRIETAREN "TXOKOLATEGIA"	16
	Osteguna 18:00 Liburutegian	IPUIN KONTAKETA HAURRENTZAT: LUR KORTA	26
	Ostirala 19:00 Aitzagan	ESKOLARTEKO TXAPELKETAREN KANPORAKETA	27
	Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazatik	KANTU JIRA KALEZ KALE	28
	Igandea 18:00 Sutegin	XXIII. LABURBIRA. EUSKARAZKO FILM LABURRAK	29

IKASTAROAK

Ostirala: 17:00- 20:30 Larunba: 10:00-14:00 Pelaioenean	MARTXOAK 8: AUTODEFENTSA FEMINISTA HASTAPEN TAILERRA MAITENA MONROYEKIN	6 eta 7
Astelehena 17:00 Gaztelekuan	BURUNTZALDEKO BEAT EROAK HERRI ARTEKO RAP LEHIAKETA: 2. SAIOA	9

ERAKUSKETA

Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00 Larunbata eta igandeetan: 11:30-14:00 / 17:00-20:00	ARTE GARAIKIDE ERAKUSKETA: "POLEN"	Martxoak 20 / Apirilak 19
--	---------------------------------------	--------------------------------------

2026ko MARTXOA



MARTXOAK 26 IMANOL EPELDE



MARTXOAK 25 Korrika Usurbilen

Kolapsoa antzerkia

Antolatzaileak: Geuretik sortuak (Udalbiltza) eta Usurbilgo Udala.
Sarrerak: 3,5 € usurbilkultura.eus webgunean.
Ekoizpena Jon Ander Urresti /
Zuzendaritza Matxalen de Pedro /
Interpreteak Maite Mugerza, Txubio Fernandez de Jauregi, Jon Ander Urresti / **Testuak** Nerea Ibarzabal /
Argiztapena Mikel Perez / **Soinuztapena** Asier Renteria /
Jantziteria eta atrezoa Paloma Merino /
Argazkiak Iker Gozategi / **Irudi eta maketazioa** Arriguri /
Teknika Vanesa Santos



Antzerki hau Usurbilen sortutakoa da. Publizitate agentzia honetako hiru kideak edozer saltzeko kapaz dira. Den-dena, baita behar ez duzuna ere. Batik bat, behar ez duzuna. Despistatu, eta bi buruko koilara bat salduko dizute azkarrago bazkalduko duzula esanda. Edo ohe birakari bat, gauero estresa zentrifugatuko dizuna. Edozer. Txakurrantzako katiuskak eta arbolentzako aterkiak. Jendea Arabar Errioxan ardo urdina eskatzera iritsi zen hauen kanpaina baten ondotik. Azken orduko gertaera batek, ordea, hankaz gora jarriko du agentzia. Gauza bakar bat saltzea lortu behar dute: gehiago ez erosteko gogoa.



LIBURUTEGIKO EKINTZAK

Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia.
MARTXOAK 2, ASTELEHENA
Literatura Solasaldia gaztelaraz, Ana Merinoren eskutik
18:30 Sutegi Liburutegian.
Iraupena: 1,15 ordu.
Mintzagai izango dugun liburua, Herman Melvilleren “Bartleby, el escribiente” izango da; eskuragarri Sutegi Liburutegian.



MARTXOAK 16, ASTELEHENA
Irakurketa solasaldia: “Txokolategia” liburua
17:30 Sutegi Udal Liburutegian.
Iraupena: ordubete inguru.
Norentzat: 12 urtetik gorako gaztetxoentzat.
Mintzagai izango dugun liburua, Yolanda Arrietaren “Txokolategia” eskuragarri Sutegi Liburutegian.



MARTXOAK 26, OSTEAGUNA
Ipuin kontaketa, Lur Kortarekin
18:00 Sutegi Udal Liburutegian.
Iraupena: 45 minutu inguru.
Norentzat: 3-5 urteko haurrentzat, eta euren guraso edo zaintzaileentzat.
Kontalaria: Lur Korta.



XXII. Soinurbil Musika Astea Martxoak 4-15

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.
Laguntzaileak: Salbatore Parrokia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

MARTXOAK 4, ASTEAKZENA

Zumarteko abesbatzen kontzertua

18:30 Sutegiko auditoriumean
Emakumeen Egunari keinu eginez, Zumarte Musika Eskola Kantu teknikako ikasleek, Zumarte Txiki eta Zumarte Gazte abesbatzek, emakume konposatzaileek sorturiko kantu-obreakin kontzertua eskainiko dute.



MARTXOAK 6, OSTIRALA

Musas y Fusas taldea - Tum Tum Clap

17:30 Zumarteko ganbaran
Sarrerak: Gonbidapena, usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Adina: 4-8 urte bitartekoentzat.
Gorputzeko perkusioak norbanako gisa garatzeko aukera ematen digu, komunikaziorako eta adierazpenerako, askatasunean garatzeko, gure autoestimua handitzeko eta nola ez, gure bi-zi-pozarako ere.
Erritmoa eta mugimenduan oinarritutako beroketa, erritmo eta talde-kohesioko hainbat jolas egingo ditugu. Oso dinamikoa eta parte-hartzailea izango den gorputzeko perkusio-koreografia bat ikasiko dugu urratsez urrats.



MARTXOAK 9, ASTELEHENA

Organo erakustaldia

18:00 Salbatore Elizan.
19:00 Salbatore Elizan.
Joan Luis Atxegaren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ezagutzeko aukera paregabea izango dugu.



MARTXOAK 11, ASTEAKZENA

Hernaniko Musika Eskolarekin trukea

18:30 Sutegiko auditoriumean
Sarrerak: Musika Eskolan.
Hernani Musika Eskola Publikoa herriko musika-irakas-kuntzaren erreferentea da azkeneko 40 urteetan. Adin eta maila guztietako ikasleei zuzendutako eskaintza zabala du, musikaz gozatzeko eta ikasteko aukera emanez. Emanaldi honetan abesbatza, txistu taldea, jazz taldea eta saxofoi taldea aurkeztuko dizkigute.
Zumartetik txikien abesbatzak, triki-pandero taldeak eta txikien gitarra taldeak parte hartuko dute.



MARTXOAK 12, OSTEAGUNA

Kontzertua Aginagan

18:30 Eliza Zaharrean
Laguntzailea: Eliza Zaharra Kulturgunea.
Zumarteko talde instrumentalen kontzertua.



MARTXOAK 13, OSTIRALA

Hugo Silveira Quartet

19:00 Mikel Laboa Plazan
Hugo Silveira Quartet honako musikariek osatzen dute: Carlos Velasco musikaria gitarra elektrikoan, Naldo Gomes brasildarra perkusio-baterian, Pablo Zarate baxu elektrikoan eta Hugo Silveira, gitarra eta ahotsa.
Konpositore brasildarrak Hugo Silveira Quartet bere proiektua aurkeztuko du, Brasilgo erritmoak jazz, funk eta rock eraginekin uztartzen dituen konposizio berria. Bere erreperorioak Brasilgo konpositore berrien eta artista ospetsuen bertsio interesgarrien belautndiak ere biltzen ditu.



MARTXOAK 14, LARUNBATA

GORA MUSIKA! DANTZAN

11:30 Zubietako frontoian
Sarrerak: 8 euro. usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Sorgin bat, Tartalo eta Basajaun geratuak dira Marirekin jolasteko. Bidean, euren gorputz eta arropekin barre egiten duten hainbat pertsonaia ezagutuko dituzte eta ondorioz, beraien itxurak zaltzantzan jartzen dituzte. Hortaz, kritikak jasotzen dituzten heinean, magiaren bitartez haien gorputza aldatzen dute, gaur egungo kanonetan oinarrituz. Ostean, guztiz aldatuta iristen dira Mari ezagutzera. Berak ez ditu ezagutzen, haserretu egiten da eta haiekin jolastu nahi ez. Berraztertzen dute egotza eta magiaren bidez, lehen zeuden modura itzultzen dira. Orain, Mari pozik dago bere lagunak ezagutzen dituelako eta elkarrekin dantzatzen dute.



MARTXOAK 14, LARUNBATA

Basabi Taldea: Oma

18:30 Sutegiko auditoriumean
Sarrerak: 8 euro. usurbilkultura.eus webgunearen bidez.
Biolina: Iñigo Coto / **Biola:** Marina Barredo
Txelo: Belen Fernandez
Txalaparta: Txomi Dhers eta Sergio Lamuedra
Bideo Instalazioa: Paula Segura
Eszenografia: Jon Begiristain.

OMA lanean, Basabik osagai berri bat txertatu du, taldearen hastapen folkloriko eta klasikoetatik urrunduz: elektronika. Ordubetez, soinu-paisaia berriak maituko dituzte, gizakiak kanpoko eremuetan izan duen esku hartzea irudikatuz. Euskal Herriko Urdaibaiko biosferaren erreserban dagoen Oma bailaratik (Kortezubi) hartu dute izena; bailara horretako basoa oso ezaguna da Agustín Ibarrolak egindako lanagatik. Kontzertu hau artista haren lanaren eskutik egingo da, eta haren-horma irudiak inguratuko ditu bertaratuak, pieza berritzaile honen soinu-diseinuari lagunduz.



MARTXOAK 15, IGANDEA

Berako Musika Banda

12:00 Kallean.
13:00 Frontoian.
Berako Musika Banda 2000ko hamarkadaren lehen urteetatik aurrera egonkortuta dagoen taldea da. Usurbilgo kontzertua Aitor Mixelenak zuzenduko du.



APIRILAK 29, ASTEAKZENA

Zumarteko ikasleek Hernanin kontzertua

18:30 Biteri Kultur etxean


Martxoaren 8a EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.
Laguntzaileak: Salbatore Parrokia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

MARTXOAK 1, IGANDEA

LILATOIA 2026

Informazio gehiago: emakumeonetxea@usurbil.eus / 943 37 71 12
Usurbilgo Emakumeon Etxeak talde bezala emango du izena aurtengo Lilatoiko 36. edizioan eta taldean izena emandako emakume guztiak elkarrekin hartuko dugu parte.



MARTXOAK 1, IGANDEA

Pintxo potea eta musika emanaldia

14:00 Artzabalen
Tiketak Artzabalen eta Txirristran salgai 10€tan. Erostea azken eguna otsailak 26.

MARTXOAK 6 eta 7

Autodefentsa Feminista Hastapen Tailerra

Formatzailea: Maitena Monroy
Ostiralean: 17:00-20:30 / **larunbatean:** 10:00-14:30
Norentzat: 16 urtetik gorako emakumei zuzendua. **Hizkuntza:** gaztelaniaz.
Informazio gehiago: emakumeonetxea@usurbil.eus / 943 37 71 12
Ikastaro teoriko-praktikoa, egunerokoan jasaten dugun matxismoari buruzko teoria eta indarkeria ikusezinak eta ikusgarriak lurreratzeko ariketa eta dinamika praktikoekin.



MARTXOAK 12, OSTEAGUNA

Liburu aurkezpena

18:00 Emakumeen etxean
Arantxa Urretbizkaia idatzitako “Zahartza-roaren maparen bila” liburuaren aurkezpena. Idazlea bertan izango da.

Buruntzaldeko Beat Eroak herri arteko rap lehiaketa: 2. saioa

Antolatzailea: Buruntzaldea euskaraz.

12-16 urte arteko bideratutako Buruntzaldeko rap lehiaketa. Bi saio izango dira: lehenengoan, hitza sortu eta bigarrenetan, erritmoa gehitu; guztia Odei Barroso eta Telmo Trenoren laguntzarekin. Azkenean, Usurbilgo gazteek abesti bat osatuko dute eta udaberrian Buruntzaldeko lehiaketan parte hartuko dute.



Haurrentzako zinea: Kayara, inka gerraria

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
Laguntzailea: Ziortza Gazte Elkartea.
Sarrerak: 3,3 euro. usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Inken neska gazte bat, Chasqui mezularien lanaren zale amorratua, Inken Inperio zabalean zehar mezuak eramateaz arduratzen den gizon-talde eksklusibo honen bat egitea amesten du. Bere gizarteko genero-arau zorrotzei eta tradizioei aurre eginez, gazteak ezarritako itxaropenen aurka borrokatzen du, eta hainbat oztoporri aurre egiten die bere anbizioa betetzeko. Ezbeharrak gorabehera, bere ausardiak eta kemenak oztopoak haustera eta bere lekua inperioaren bihotzean dagoela frogatzera bultzatzen dute.



Martxoak 14, larunbata USURBILGO GAZTE EGUNA

Antolatzailea: Azarrika gazte asanblada.

11:30 “Kulturgintzan ekin” tailerra EHZ-koekin. Gazte lokalean.
17:30 Poteo girotua Peña Alegria txarangarekin.
20:30 Afaria Askatasuna plazan.
Tiketak Aitzaga eta Txirristran salgai martxoaren 2tik 11ra.
00:00 Kontzertu gaua:
- Baisiak
- Nafarroa1512
- DJ Adarrak

